

Aitatxi eta Amatxi

Egun batez baziren aitatxi eta amatxi batzuk.
Amerikara bidaiatzera joaitea amesten zuten eta joan ziren. Hara heldu eta hotel batean gelditu ziren eta bi astez han egon ziren.



Intza

Sirena eta jendea

Egun batez bazen mutiko bat.
Hondartzara joan zen, urean jostatzen ari zen plost!
Sirena bat agertu zen urean, mutikoak ikusi zuen eta harrিতua zen!
Elkarrekin jostatu ziren.



Enora

Kantaria

Egun batez bazen kantari magiko bat, Xermin deitzen zena. Animaleak deitzen ahal zituen gitarrarekin, pianoarekin, eta abar...

Egun batez, kantariak musika jo zuen baina animale batek ez zuen entzuten, uste izan zuen ezer ez zela abere horren barnean. Abere hori nahasketa bat zen, erdi ipopotamo erdi tigre.

Kantariak beste animaleak deitu zituen laguntzeko, abere munstro horren hiltzeko, planetarentzat arriskutsua baitzen. BUKAERA



Mendi

Ikastola

Egun batez bazen familia bat, bi haur bazituzten, neska bat eta mutiko bat.

Neskak lau urte zituen eta mutikoak sei urte.

Astelehena zen eta beste haur guziak bezala ikastolara joan behar zuten, lehen aldia zen eta ez zuten fitxik ulertzen, ondoko egunetan berdin izan zen, baina handitu eta ikasi zuten.



Argi

Ostatuko jabea

Egun batez bazen mutiko bat deitzen zena Mikel, ostatuko jabea zen.

Ainitz jende etortzen zen ostatu horretarat, arrakasta handia zuen eta gauean pesta egiten zuten.



Ibai

Orduaren orduak

Egun batez, etxe zahar batean, aitatxi bat bizi zen. Bostetan, bere ordulariak ding ding ding ding egiten zuelarik, aitatxia hartzez erakdatzen zen. Gero seietan ñiñi ttipi bilakatzen zen.

Egun batez, bostetan aitatxia ez zen hartzez tranformatu eta seietan ez zen ñiñi ttipiz tranformatu. Bere buruari galdegin zion zer pasatzen zen, ordulariari so egin zion, hautsia zen beraz zakar untzira botatu zuen eta beste bat erosi zuen, hori ez zen magikoa.

Eta aitatxia untsa bizi izan zen.



Leire

Gazteen pestak

Behin batez baziren gazte batzuk.
Gazteek gaztetxe bat atzeman zuten eta pesta egin zuten.
Ondotik, korrika egin zuten eta gero mutiko batek neska bat topatu zuen eta mintzatzen hasi ziren.



Maitane

Alabaren beldurra

Egun batez neska bat bazen, behin bere amak erran zion :
« - Maddi, zure ganbera bildu ! »
« -Ados ama. »
Eta hor tirantean, mamua bat agertu zen.
« -Ama ! Mamu bat bada !!!»
Mamua kukutu zen eta Maddi hil zuen.
Bat batean, neska mamu bat agertu zen amaren aintzinean...
Hau dena amets gaixto bat izan zen.



Nahia

IXTORIO MISTERIO
LAUDORIO
ABENTURA ETA
AMODIO



2. eta 3. urtekoak ARBEROA IKASTOLA